

Giro onean ospatu zuten 80 bat lagunek Sagardo Festa

Soila-enean dultzainari, trikitilari eta bertsolariek alaitu zuten jaia

TXEMA VALLES
DV. LASARTE-ORIA

Joan den lanunbatean ospatu zen, Ttakunek antolatuta, Sagardo Festa izeneko jaialdia bigarren aldiz. Horretarako hautaturiko lekua Soila-enea sagardotegia izan zen aurten ere eta festarako gogotsu 80 bat lagun bildu ziren bertan afal ordurako.



Sagardotegiko kupel guztiak probatu zituzten bildutakoek./TXEMA

Afariari hasiera ofiziala emateko, bi txalapartarik saio txo bat egin zuten bertan bildutakoentzat. Lehenik eta behin afaria izan zen eta bertaratutako guztiak han ibili ziren batera eta bestera, sagardotegiko kupel guztiak probatu nahian 'txotx' deiari erantzunez. Adin ezberdinetako jendeak ez zuen horretan ezberdintasunik egin. Gazte jendea batetik, jende heldua bestetik, eta erdibidean daudenak ere, giro euskaldun eta alai batean aritu ziren batera eta bestera. Giro euskalduna ardatz dela adin eta izaera ezberdineko jendea biltzea nahiko ohizko gauza da Ttakunek antolatutako jaialdi eta afarietan eta larunbatekoan ere aniztasuna nabaria zen.

Afalosteko jaialdia

Afaria giro horretan igaro ondoren, postrearekin amaitu orduko eman zioten hasiera afalosteko jaialdiari. Hasteko lau dultzainero izan genituen eta pieza ugari eskeini zituzten. Ondoren trikitixaren ordua iritsi zen. Herriko trikitilari bikote bat aritu zen bere doinuak aidentatuz eta hauek lanean hastearekin batera batek baino

gehiagok dantzan mugitu arazi zioten ordura arte jandakoak. Gero bertsolarien ordua iritsi zen. Herriko bertso-eskolako lau bertsolari aritu ziren larunbateko jaialdian: Ebaristo Pikabea, Ion Iñaki Elexpuru, Andoni Otamendi eta Pablo Suberbiola. Bertsotan hasi eta berehala, bertara afaltzera hurbildutako kontuak aipatu zituzten laurak.

Ondoren, berriz ere trikitilari zein dultzainari saio bana osatu zuten. Hauen abestiak entzun eta gero, bertso doinuak nagusitu ziren, oraingoan, trikitixaren laguntzaz, eta igandean Santa Ageda bezperako jaia ospatzen zenez, lau bertsolariak kopletan aritu ziren Santa Agedako doinua erabiliaz. Kasu honetan ere bertako gora-beherak izan genituen nagusi eta zahar zein gazteek gustora hartu zituzten entzundakoak.

Antolatzaileak gustora

Gauzak honela, antolatzaileek balorazio positiboa egin dute aur-

tengo Sagardo Festaz. Aurreko asteazkenean ospatutako hitzaldian sagardogintzaren inguruko gaiak jorratu ondoren, larunbateko jaialdia ospatu da eta biak ere nahiko erantzun onarekin eta oso giro onean. Beraz, datorren urteko Sagardo Festaren zain geratu beharko duzue aurtengoan joaterik izan ez duzuenok.

Eusko Alkartasuna

Postazko botoari buruzko informazioa jaso nahi baduzu Elkartetxetik pasa zaitezke astelehene-tik ostiralera arratsaldeko 4etatik 6etara. Elkartetxea: Nagusi kalea 3. telefonoa: 370570.

Basaundiko gazte

Basaundiko gazte batzuek asanblada batetara deitzen dute auzoko jende guztia, auzoko ekitaldi eskasia dela eta, hitzegitera eta kultur ekintza, diapositiba, e.a...auzoan antolatzeke asmoz. Bilera hau, Gaztetxean izango da bihar arratsaldeko 8etan.